



## Ikurrina zintzilikatzeko deia egiten du Villabonako Udalak

Espainiako Gobernuaren ordezkartzak egindako errekerimenduaren ondoren eta 527/2013 epaiaren bidez, Villabonako Udala ..... rako Espainiako Bandera jartzera behartu dute, herritarren borondatearen aurka. Epaia betetzerakoan, Villabonako Udalak (EH BILDU eta EAJ PNV) ondorengo adierazpena helarazi nahi die herritarrei:

Herriak aukeratzen ditu bere ikurrak, bereak egiten ditu eta horregatik dira herriaren ikur. Aldiz, legearen indarrez inposatutakoak badira, orduan, inposizioaren ikur bihurtzen dira.

Espainiako bandera zigorraren mehatxupean inposatutako sinboloa da gure erakundean. Herritar gehienon nahiaren auka ezarri eta herritarren ordezkarien erabakimenaren kontra jarriko da. Espainiako banderak ez ditu amasa villabonatarrek ordezkatzeko eta inposaketaren bidetik bakarrik ikusiko dute ikur hori. Ez ditugu banderak eta koloreak gutxiesten. Aitzitik, ordezkatzeko dituzten lurraldeetako ikur izatea zilegi dela deriotzogu. Baina, era berean, argi dugu nongoak garen eta zerk ordezkatzeko gaituen.

Hau guztia kontuan hartuta, Villabonako Udalak herritar guztiei dei egiten die etxeetako leiho eta balkoietan ikurrina zintzilikatzeko. Era berean, Madrildik datorren inposaketa hau mantentzen den bitartean zintzilikatuta izateko deia luzatzen dugu, Villabonan herritarrek berea sentitzen duten ikurra zein den argi adieraziz.

Villabonan, otsailaren 25ean

Amasa-Villabonako EAJ-PNV eta EH BILDU

